

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

- 5138** *Huts-zuzenketa, errege lege-dekretu honena: 17/2020 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 5ekoa, zeinaren bidez COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egite aldera kultura-sektoreari laguntzeko neurriak eta zerga-arloko neurriak onartzen baitira.*

Maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretua argitaratu zen 2020ko maiatzaren 6an *Estatuko Aldizkari Ofizialean*, 126. zenbakian, errege lege-dekretu haren bidez COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egite aldera kultura-sektoreari laguntzeko neurriak eta zerga-arloko neurriak onartzeko; bada, hutsak aurkitu ditugu testu horretan, eta honen bidez zuzentzen ditugu:

13. orrialdean, 4.2 artikuluan, laugarren eta bosgarren lerroetan, honela dio: «... lege horren 210. artikulua 1. apartatuko g) letran araututako arrazoiagatik...». Eta honela behar du: «... lege horren 211. artikulua 1. apartatuko g) letran araututako arrazoiagatik...».

26. orrialdean, azken xedapenetako zortzigarrenean, izenburuan eta lehenbiziko paragrafoan, honela dio: «Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB Zuzentarauen». Eta honela behar du: «Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen».